



ESPERIENTZIAREN IZENA: Eibarko emakume mahaia

ONARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzua
- **Erakunde mota:** Publikoa
- **Sorrera urtea:** Emakumeen Mahaia 1995ean sortu zen ofizialki
- **Lan arloak:**
 - Emakumeen aurkako indarkeria, parte-hartze politikoa
 - Jabekuntza, emakumeen eskubideen aldeko sentsibilizazio eta eragin politikoa,
 - Jabekuntza ekonomikoa
 - Eta abar.
- **Estruktura:** ordaindutako langileak 3 / bolondresak (12 inguru – aldakorra)
- **Kokapena:** Andretxea, Zezenbide kalea 9 baxua, Eibar.
- **Web orria:** <http://andretxea.kzcomunidades.net/es/html/> - <http://facebook.com/andretxea.eibar>
- **Esperientziak jorratzen dituen gaiak:**

Udaleko Berdintasun Planean agertzen diren gaiak: Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea; Gizarte antolakuntza erantzunkidea eta Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.
- **Lan eremua:** lokala

KONTAKTU DATUAK

- **Kontaktua-pertsona:** Berdintasun Zerbitzuko teknikaria Marijose Lasa eta Andretzeko dinamizatzailea Zaida Fernandez
- **Telefonoa:** Berdintasun Zerbitzua (Gizartekintzan) 943 70 84 40 eta Andretxea (943 70 08 28)
- **Emaila:** berdintasuna@eibar.eus - andretxea@gmail.com

LABURPENA

ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Emakume Mahaia Eibarko udal administrazioak aholkuak jasotzeko duen baliabidea da, (herritarren pardu- detzarako gunea). Emakumeen Mahaian informazio interesgarria ematen da, programak eztabaidatzen dira eta hainbat ekintza antolatzen dira gako kolektibo batean. Eibarren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errealtate izatea da euren helburua.

Hileko azkenengo astelehenetan biltzen da, 17:00etan ANDRETXEAN. Eibarko emakumeen elkarteak eta elkar- terik gabeko emakumeak parte hartzen dute eta baita Berdintasun Teknikaria eta Berdintasunerako Arloaren Zinegotzia ere.

Emakume Mahaia egitekoak ondorengoak dira:

- a) Udalaren politika zuzentzea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eskuratzeko xedez.
- b) Aukera berdintasuna eskuratzeko udal iharduera plangintzak bultzatzea eta plangintza horren jarraipena egi- tea.
- c) Toki Administrazioari aholkuak eman iharduera lerro nagusiak zehazterakoan eta aurrekontuan lehentasuna eman behar zaien gauzak zehazterakoan.
- d) «Emakumearen Mahaia»n parte hartzen ez duten pertsona edo taldeek egindako iradokizunak edo ekimenak jasotzea.
- e) «Emakumearen Mahaia»ri iristen zaizkion diskriminazio jarrerren salaketak jasotzea eta salaketok bideratze- ko ahalmena duten organoen esku uztea, salatu diren jokabide horiek berdintasunaren oinarria hautsi edo emakumearendako iraingarriak badira eta behar bezala oinarrituta badaude.

- f) Partizipazioa bultzatzea, emakumearen aldeko jarduerak daramatzaten beste elkarte eta gainerako erakundeekin elkarlana eta elkarlaguntza bultzatzea.
- g) Mahaikide berriak hartzea edo kideren bat kanpora botatzeko erabakia hartzea.

TESTUINGURUA



Zeuden beharrak: Emakumeen parte hartzekoa bermatzea hainbat helburu aldarrikapen kolektiboki erreibindikatzeko; espazio-beharrak; emakumeen eskubidearen aldeko erreibindikazioak...

Aurre-baldintza lagungarriak: Eibarko Emakume Mugimendua eta Udalaren interes politikoa dena bat egin zutela.

Kontrako aurre-baldintzak: Aldarrikapenen erabilera politikoa.

Emakumeen inguruko gaiak politikarien interesean dependatzea (Zinegotziaren interesaren arabera).

INFORMAZIO OROKORRA



Zer lortu nahi zen?

Emakumeen parte-hartzea mantentzea lortu nahi zen, aldaketa politikoak zeudelako elkarrekin desagertzen zeuden eta estruktura finko bat aldaketaren gainera egotea nahi genuen. Hori lortu zen Emakume Mahaiaarekin.

Zer lortu zen?

Emakume elkarrekin parte-hartze aktiboa sustatzea; Andretxea espazio propioa lortzea eta estruktura finkoa egotea.

Nola lortu zen?

Elkarrekin sare-lana eginez, eta beraiei ikustaraziz pertsonaetik kolektibora pasatzea beharrezkoa zela gure helburuak betetzeko.

Nortzuk egin zuten posible?

Garai hartan zeuden elkarrekin kideek, berdintasun teknikariak eta politikariek (Udaleko administrazioak) egin zuten posible.

Indarguneak eta ahuleziak /zailtasunak:

Indarguneak: emakumearen-mahaian parte-hartzen duten pertsonak eta honen estruktura finkoa (araudi bat dauka).

Ahuleziak edo zailtasunak:

Momentu horretan zegoen aurrekontu eskasa eta orokorrean garai horretan zegoen formakuntza feminista eskasa.

Gaur egun, oraindik Andretxearen espazioa ez da duina. Eskasa da hainbat jardura mota egiteko.

Arrakasta faktoreak

Emakumeen beharra erantzun-tresna bihurtzea.

Ikasitako lezioak

Horrelako proiektu batean behar dena ondorengoa da: konstantzia handia; aurreiritzi gutxi; jende guztien ekarpenak balioan izatea; ilusio handia eta aldaketetan sinestea.

Etorkizunerako erronkak

Andretxea berri lortzea (handiagoa, egokiagoa, bisibleagoa, sartzeko erraza; orokorrean espazio duina izatea); Berdintasun Zerbitzua Arlo bihurtu eta langileen finkotasuna, besteak beste.